

MAKROEKONOMIA

Azterketa (2019-2020)

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (EHU, Donostia)



Gizapedia

gizapedia.org

Makroekonomia 2020eko Urtarrilak 23 (31 taldea)



Izena eta abizenak.....

1. (2,5 puntu) Eskaintza agregatuak (SA) eta eskari agregatuak (DA) osatzen duten herrialde itxiaren eredu makroekonomikoa aintzat hartuta, bertako gobernuak zergak jaisteko erabakia hartu du (politika fiskal hedakorra). Kontuan hartuta DA eskari agregatuaren ekuazioa $Y = Y(M/P, G, T)$ dela eta SA eskaintza agregatuarena ondokoa $P = P^i (1 + \mu) F[(1 - Y/L), z]$:

1.1. i) Zein merkatutatik abiatuta eraikitzen da eskaintza agregatuaren goiko ekuazioa eta zein funtziok osatzen dute ekuazio hori?

Eta ii) Zein merkatutan oinarritzen gara eskari agregatu orokorra (DA) eraikitzeko?

1.2. Erakuts ezazu irudien bidez (IS-LM eta DA-SA erabilita) eta idatziz azaldu zein den zergak (T) jaistearen eragina produkzio-mailan, prezioetan, interes-tasan eta inbertsioan, epe laburrean eta epe ertain/luzean (irudiak erabili eta hitzez azaldu zein den epe laburretik epe luzerako doikuntza prozesua).

2. (2 puntu)

Makroekonomia 2020eko Urtarrilak 23 (31 taldea)

- i) Ondoko taulako zein herrialdek dute merkataritza balantza superabitariora, zergatik?


Inbertsioa eta Aurrezkia 2016 (BPGaren %)

Herrialdea	Aurrezkia (BPGaren %)	Inbertsioa (BPGaren %)
Alemania	27	19
Argentina	14	16
El Salvador	12	14
Erresum Batua	13	17
India	32	30
Japonia	27	24
Maroko	27	31
Senegal	16	26

Iturria: Munduko Bankua

- ii) Zertan bereizten dira kanbio-tasa nominala eta kanbio-tasa erreala?.

iii. Kontuan hartuta $XN(\epsilon) = S - I(r)$ ekuazioak ϵ kanbio-tasa erreala determinatzen duela eta S emanda datorrela (herrialde barneko politikek aldatzen dute) eta I interes-tasa errealaren menpekoa dela: nolako eragina du Guatemala bezalako herri txiki bateko txanponaren kanbio-tasa errealean (ϵ) eta merkataritza balantzaren (XN) munduko interes tasa errealean (r^*) jaitsiera batek (Beheko iruditik abiatuta eman ezazu azalpena).



Makroekonomia 2020eko Urtarrilak 23 (31 taldea)

3. (puntu 1) Ondoko soldata ekuazioa emanda: $W = P(1 - 0,80u)$, non u langabezi tasa den:

a) $\mu = 15\%$ bada, zein da soldata erreala eta langabezi tasa naturalaren balioa. Grafikoa ere erabili oreka irudikatzeko.

b) Petrolioaren prezioa jaisten da. Lehengo grafikoa erabilita aldaketa honen ondorioa azaldu eta azter ezazu soldata errealean zein langabezi tasa naturalean petrolioaren prezio jaitsiera horrek dituen ondorioak.

4. (2 puntu) Ekonomia itxi bateko Phillips-en kurbaren ekuazioa ondokoa da:

$$\pi_t - \pi_t^e = 0,1 - 2u_t$$

Demagun $\pi_t^e = \theta \pi_{t-1}$ (inflazioaren igurikapenak aurreko urteko inflazioaren oinarriaren gainean eraikitzen dira) eta hasiera batean $\theta = 0$ dela eta desenplegu-tasa desenplegu-tasa naturalaren berdina dela. "t" urtean gobernuak desenplegu-tasa %3ra jaitea erabakitzen du eta maila horretan modu iraunkorrean mantentzea erabakitzen du.

a. Kalkulatu helburu hori lortzeko ondoko urtetako inflazio-tasaren maila: t, t+1 eta t+2

b. Zer gertatzen da $\theta = 0$ egoeran Phillips-en kurbarekin eta jendeak prezio igoeren inguruan duten igurikapen edo espektatibekin.

c. Demagun orain $t+3$ urtean, $\theta = 1$ dela (hau da, 0-tik 1-era igotzen dela θ faktorea). Eta gobernuak oraindik desenplegu-tasa %3 mailan mantendu nahi duela: kalkulatu $t+3$ eta $t+4$ urtetako inflazio-tasak (oharra: $t+2$ urteko inflazio-tasa a) atalean kalkulatu duzuna da).

d. Zergatik igo daiteke θ modu horretan?

e. Desenplegu-tasa naturala:

i. Kalkulatu

ii. Epe luzean desenplegu-tasa naturala aldatzen da?. Zergatik?

EBALUAZIO EZ-JARRAIA

5. (1,5 puntu) Ondoko albisteak irakurri. Zein da albiste horrek definitzen duen politika ekonomikoa? Neurri horren eraginak islatzeko grafikoa erabili.

Abendura atzeratu ditu EBZk moneta politikari buruzko erabakiak
Berria. 2016ko urriak 20

Hilero 80.000 milioi euroren bonu erosketak egiteko programaren epemuga heldu den urteko martxoan jarrita dago, eta luzatuko duen edo ez argitu beharko du banku zentralak zazpi aste barru

Interestak eta ezohiko moneta politika aldatu gabe utziditu gaur EBZko Gobernu Kontseiluak. Diruaren prezioa %0 da gauegun, eta banku zentralak gordailu andirua zuten finantza erakundeei %0,4 kobratzen aie, tasa negatiboak indarrean jarrita. Halaber, **hilero ekonomiarik 80.000 milioi sartzen dizkio**, herrialdeen eta konpainien zorpetze arosita.

Zazpi aste barru, abenduaren 8an, urteko azken bilera du kontseiluak, eta moneta politikaren etorkizunari buruzko argibide zehatzagoak eman dituzte orduan. "Esango dugu zein izango den hurrengo aste eta hilabeteetarako jokabidea", aurreratu du Mario Draghi EBZko presidentea.

6. (puntu 1)

i. EAEko KPIaren ondoko bilakaera ikusita, azaldu:

a) zein da hiru urteotako inflazioaren joera?

b) zein da inflazio mota bakoitzak inflazio osoan duen eragina?

KPIaren banaketa				
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak				
	2015	2016	2017ko iraila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	1,9	1,9
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	1,2	1,0
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	0,0	0,0
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	0,2	0,1
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,9	0,9
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	5,2	0,9
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	3,8	0,3
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	5,8	0,6

ii. Prezioak egonkorak dira eta interes finakoarekin 10 urterako mailegu bat ezartzen da. Epe horretan azkenean deflazio prozesu bat ematen bada zeinek irabazten du, hartzekodunak ala zordunak? Zergatik?

iii. A deritzon herrialde bateko langabezia tasa handitu da eta B herrialdeko langabezia tasa jaitsi da urte berean, baina bietan enplegu osoaren hazkundea eman da urte horretan. Egia ala gezurra?. Zergatik?